

ANTONIO TOVAR OROITZAPENETAN (1911-1985)

Abenduaren 14ean galdu dugu, hainbesterentzat ustekabean, Antonio Tovar Llorente, ohorezko euskaltzaina, ikertzaile bezain irakasle entzutetsua. Ez da hiru, besterik badirudi ere, berri alferra nahiz dagoeneko hedatua izan. Inoiz ezagun izateak ez baitu iraukortasunik segurtatzen. Berria berriaren gain pilatzen da, izan ere, egungo bizimoduaren ito-beharrekin, eta maizenik berehalakoan entzuna berehalakoan ahaztu ere ohi da.

Alde eta alderdi ugari ditu Tovar-en bizitzak, ez guttiago bere lanak. Beste-tangoak areago izan dira, esango nuke nik, gure artekoak baino. Halaz guztiz, ordea, urriago direlako batetik eta geurekikotzat dauzkagulako bestetik, ez lukete ixilpean gelditu behar. Eta hemengoena eta geurekikoena hizkuntza denez gero, Euskaltzaindiari dagokio, etxeko zuenez, haren izena eta omena goraiatzeari.

Tovar, azken urteotako —hamarnaka hartzen ditut hauek— borroketan, eta borroka izan da estari nahiz nabari Espainian 1936z gerozko jarduna, zubigile izan genuen beste zenbaitzuekin, ez haatik gehiegirekin. Hara arterainokoak ez baitziren beti izan esan ohi zuten bezain ustelak, ezta gerokoak ere zenbait sineskorrek eta gehiago lotsagabek aldarrikatu izan duten adina heldu-zorituak. Horrek erakusten digu, premiarik bada, ez dela beti, nahi eta nahi ez, kaltegarri eta are galgarri harako zubigintza hura, aski nabarmena behin batean gure etxe inguruan. Ez du izan behar ere, diodan luzatu gabe, osasungarri eta salbagarri ezinbestearen ezinbestez.

Tovar-ek argitaratuak, eta hainbat lekutan jaso zituen ohoreak, ez dago hemen aipatu beharrik, beste bi lekutan bederen agertzen baitira. Hona zeinetan: *Homenaje a Antonio Tovar ofrecido por sus discípulos, colegas y amigos*, Madrid, Gredos, 1972, eta *Nauicula Tubingensia. Studia in honorem Antonii Tovar*, Tübingen, Gunter Narr Verlag, 1984 (= *Tübinger Beiträge zur Linguistik*, Bd. 230).

Berak jaso zuen, eta hemendik hasiko naiz, Salamancako Unibertsitatea, behialako —1500 inguruko edo— erramu hostoak zimelduxe baitzituena aspaldidani, Unamuno gora-behera, zenbait buruberoren ametsetan ez bada. Handik, urruti xamarreko xoko hartatik, zabaldu nahi izan zuen, kosta ahala kosta eta ez errietarik gabe, jadanik lege zaharra zena munduaren lau bazterretan: ikas- eta irakaspideak jende saiatuaren eskuetan behar dutela egon, mugituko badira. Han-hemengo saio eta erdiespenen berri dakienaren eskuetan. Horixe izan zen, hitz batean biltzeko, ukabil gogorrez sartzen ahalegindu zen seriotasuna.

Hizkuntzalari eta filologo, maiz sumarazi zuen bere izena filologia klasikoak, harako *Altertumswissenschaft* hura, nazioarteko mailaraino altxatu zuen mordoxkaren erdian. Eta ez da azter-sail gehiegirik, baten bat aurkitzen baldin bada, horren pareko goraldirik nabaritu zaionik Francoren amaigabeko garaietan.

Latina eta grekoak, gure eremuko hizkuntza klasikoak, ez dabilta bakarka: badute lagun senide piloak. Hori dela eta, gainerako hizkuntza indieuroparretan ere (Mirandek zerabilen deitura darabilt) saiatu zen Tovar: *Manual de lingüística indoeuropea* zelakoan zuzendari eta lankide izanik, besteak beste. Ez baitzuten, sarriegi gertatu ohi denez, urrutikoak gogokoago bertakoak baino: hortik etorri zitzaion mendebal-aldeko hizkuntza zeltikoetarako joera. Berari zor zaio, Gerhard Bähr eta Caro Barojarekin bateratsu, zeltiberikoaren nortasuna eta hedadura ezagutzea eta ezaguteraztea. Bazen beste horren ahaide hurbil eta ezkutuagoa, lusitaniarra, Tovar-ek zeltiberikotik bereizten eginahalak egin zituena. Zuzen eta arrazoiz, nik uste, sesioak artean bukatu ez badira ere. Bukatuko ere nekez, testuak ugaritzen ez diren bitartean.

Aurrerabidean sartu baziren arlo horretan, Gomez Morenoren eriteitze edo aurkikundeari eskerrak izan zen. Hark idoro baitzuen —idoro, bai, baina ez behar bezain laster barreiatu— Hispaniako izkribu zaharren mordorik aberatsenaren irakurkera egokia, eta ondoren izan zituen langile ausartak aipatu berriak izan ziren: Bähr Euskaltzaindikoa (1940ko martxoa baino lehen burutua omen zuen tesia), Caro eta Tovar. Irakurkera hori izan baitzen aspaldidaniko zenbait auzi osotoro erabaki zituena. Ikur horien azpian zetzana, “iberiko” izenaren estalkipean, ez zela, Schuchardt-en argudioen arabera, hizkuntza bat eta bakoitza; bi zirela hauek, guttieneko kontuan. Eta biok, gainera, bata bestearen “ez aide ez bernaje” zirela, “erdararekin euskera” bezala, Kardaberazen iritziz.

Sail honi loturik argitara atera zituen lehen lanak liburu batean bildu zituen Buenos Airesen, han zebilelarik irakasten: *Estudios sobre las primitivas lenguas hispánicas*, 1949. Hor eta geroago agertu dira Tovar-en saioak horietarik bat, iberikoa, euskarari hurbiltzeka. Ahaidetasuna, eta sortzezkoaz ari naiz (ez ‘egokitasuna’ deitu izan dudana), ez zuen Tovar-ek beste zenbaitek bezain estu lotzen. Nolanahi ere den, ez du bide horretan ez hark ez bestek urrats luzerik egin. Ezin egon gainera hobe ustean, ustekabekorik gerta ez dadino.

Harri dezake norbait agian Tovar-ek, eta bestek, euskara mintzaira horien artean sartzeak. Ez ote dugu bada euskara oraingoa, besteak ez bezala? Ez da hori ukatuko duenik, ezta ere euskarari orduko izatea aitortuko ez dionik. Eta orduan, gaur lagunez murrizturik gelditu bagara ere, elkarren aldameneko ziren gurea eta besteak, Gallia aldeko galoaz bestalde. Eta hori mesedegarri izan zaigu, kidetasun horren bidez euskarak badituelako auzokoekin harremanak, ahaide ez diren auzoak badira ere. Kidetasun horren ezaugarri izan dira *Coloquios sobre lenguas y culturas prerromanas de la Península Ibérica*, gero *paleohispánicas*, direlakoak. Azkeneko bilera aurtan egin da Gasteizen, Fakultatearen itzalpean, joan den udaberrian. Eta ez daki oraindik inork nor jar dezakegun eratzailen buru, Tovar-ek umezurtz utzi duen lekuan.

Etxe eta ate izan zituen irakastaldiak ez ditut aipatu besterik egingo. Salamancan eta Madrilan aritu zen (eta hemendik bere gogoz aldegin zuen lagunei egin zieten bidegabekeria zela medio), Ameriketara ibilia zen behin baino gehiagotan, bai Ipar- bai Hego-aldean. Azkenik, Alemanian kokatu zen luzaroan eta hil

arteraino urteoroko irakastaldiak han egiten zituen. Bildu zituen bereizgarri oho-
ragarriak lerro lerro ematea eginkizun luzeegia genuke. Aski izan bedi, oraingoz
behintzat, huskeri hau honera aldatzea. Goien osorik izendatu ditugun omenal-
diatarik lehenbizikoan Euskaltzaindia dator aitzindari, 1947an urgazle (horrela
esaten zen noski garai hartan) hautatu zuelako urteen buruan ohorezko lagun
aukeratuko zuena.



Durangoko udaletxean, 1980-XII-8, XV. liburu eta Disko azokan:

Eskumatatik ezkerretara: Sabin Goikolea, Gerediaga Alkarteko Burua; Patxi Zurikarai, Bizkaiko Foru Kultur Diputatu; Antonio Tovar eta Jose Luis Lizundia, Euskaltzaindiko Idazkari-Ordea.

Hau eta horrelakorik hartu bazuen guregandik ez zen hutsaren truk izan. Aldi luze bezain tristea ezagutu dugu batzuek, debekuz eta oztopoz bete, eta Tovar genuen orduan etxean nahiz atzerrian izan genitzakeen laguntzaile bakanetakoa: alfer lana litzateke, beraz, eta ez batere erraza, beregana zenbat aldiz eta nolako estuasunetan jo dugun bana-banaka kontatzea. Hizkuntza gaietan ohi baino eskuzabalagoa zelarik (Salamanca agertu zen bera buru zenean, esate baterako, Carles Ribaren *Salvatge cor*, ez izena ez izana itxuraldatu gabe), bazuen haurtzarotik gurekiko lotura eta gureganako joera, hizkuntza gaietan bizi zeino bizirik iraun zuena.

Berea izan zen, giro hobean jaio zen Bordelakoaz landa, alde honetako lehen pausoa, "Cátedra Manuel de Larramendi de lengua y literatura vasca" zelakoa, eta delakoa, abiarazi zuenean. Bazituen bere mugak, lurralde haiek ezagutu dituenak dakienez, diruz gaizki hornitua zegoelako, besteak beste, baina han izanak dira, adibidez, Bouda, Lafon, Martinet, Bottiglioni eta abar. Hemengo abarren artean, Altuna, Gorostiaga eta Ierro hauen egilea.

Euskararekiko liburuak baizik ez ditut honera ekarriko. *La lengua vasca*, jakina denez, bi bider argitaratua da. *Mitología e ideología*-k, arestikoa denez, ez du noski oroikaririk behar. Schuchardt-en *Primitiae linguae Vasconum: Einführung ins Baskische* ezaguna ez dut uste berak itzulerazi zuenik, bai ordea Salamanca argitarazi (1947). Gero bigarren edizioa berak ateratu zuen alemanez, Tübingen, Max Niemeyer 1968, sarrera eta osagarriekin. Eta euskara, antzinako hizkuntzen aldakan, guttiagok ezagutzen duen liburu honetan aurki daiteke: *The ancient languages of Spain and Portugal*, New York, Vanni, 1961. *El euskera y sus parientes*, Patxi Etxebarriak zaindua, itzuri egin zait; baita ere, nora ezean, idatzi dituen hainbat artikulua, **Euskera**-n bertan esaterako, oraindik ere irakurgarri direnak eta ez beti irakurriak.

Gizona nolakoa zen ezin hitz laburretan esan. Eskuzabala ez ezik, diruaren goserik ezagutzen ez zuena. Langile amorratua. Askojakina, baita bere sailetik kanpoko arazoei buruz ere edota hauetan batipat askojakin. Beregandik geurok geure begiz ikusi ez genituen gertari eta pertsona ugariren berri sakon zuena. Eta ez zuen berezikuntzarik egiten besteren pentsamoldearen arabera. Nerau naiz, inor izatekotan, egia horren lekuko. Gainera, Salamancara eraman ninduenean, ez nintzen artean dotore ere, bion adiskide batek Bilbon orain berriro gogorazi zigun bezala.

Goian bego, hemen esan ohi zenez eta zenak onartuko zukeenez.

P.S. Gogoangarri da, gorago esan ez bada ere, Tovar izan zela Florentino Castañosek Madrilen aurkeztu zuen tesiaren zuzendari: *La formación del plural en la lengua vasca*. Bi liburutan, izen banarekin, agertu da gero: Publicaciones de la Diputación Foral del Señorío de Vizcaya, 1979. Gu bete-betean ukitzen gaituenak goiko izenburua darama, eta ez dut uste behar adina erabiltzen dugunik, komeni litzaigukeelarik.

Donostia, 1986-II-28

Koldo Mitxelena